

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Añana-Sobron

Sobron ezagutzen

Haur Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Ingurunea ezagutzea eta esploratzea.

ARLO/IKASGAI ERLAZIONATUAK: Harmonian hazten; komunikazioa eta errealitatearen adierazpena.

Ur Tantak zuri kontatzeko istorioa du... Sobrongo iturburutik sortu da, bidaian lagun diezaiogun eta inguruko soinuak, animaliak eta landareak ezagut ditzagun, baina... oh! oh!.. Zerbait gertatu da, eta Ur Tanta triste samar dago: ibaian egon behar ez luketen gauzak aurkitu ditu. Baina ez kezkatu, denon artean lagunduko diogu garbi eta pozik uzten!

Ipuinaren, jolasen, zentzumenen eta uraren zikloan zeharreko bidaia handi baten bidez, Ur Tantara nola lagundu ikasiko dugu. Salto eta korrika egingo dugu, natura entzungo dugu, geure soinuak sortuko ditugu eta elkarrekin margotuko dugu bizi izan duguna.

Ur Tanta gidari dugula, Sobrongo sekretuak ezagutuko eta natura zainduko dugu jolastuz eta ikasiz!